

**MUNIBE (San Sebastián)**

Sociedad de Ciencias Naturales **ARANZADI**  
Año XXIII - Número 1 - 1571. Páginas 155-156

## Gorosta-Beñako harrizko aizkora

**JUAN SAN MARTIN**


Eibarko Gorosta-beña izeneko baserri ondoko soroan, bertako Maria Yarza andereak, harrizko aizkora bilatu zuen 1970-eko apirilean. Toki honen koordenadak, Instituto Geográfico y Catastral-eko 1:50.000 maparen 63 (Eibar) orrian, luzegoan, 1º 13' 37"; zabalgoan, 43º 12' 28".

Aizkora leunduetarikoa dugu. Otaharri edo ophita berdexkan ondo landua da; bilatu den inguru berean ugari arkitzen den materiala. Aizkorak, bere alderdi biak erdialderuntz biribiltasunez landuak ditu eta bere ertz guztiak ere ondo biribilduak, aho partea izan ezik, zeren ahoa zuzena eta zorrotza bait du. Atzekaldea, buru ondoa, punta biribilez bukatzen da, zurezko kirtenean sarturik joaten ziren aizkoren itxura du. Egituraz, teknika taxura, Neolitiko garaian hasi eta Eneolitikoan ere jarraitzen zuten erarik klasikoenetakoa du.

Bere neurriak, alderik handianetan:

Luzera, 90 mm.  
Zabalera, 45 mm.  
Sendoera, 30 mm.  
Ahoaren luzera, 42 mm.

Gipuzkoan orain arte ez da bilatu era honetakorik. Ez diot zer ikusirik arkitzen, ez materialez eta ez moldezko teknikaz, Uberan (Elgeta) arkituarekin. Honen berri ikusi genezake **Munibe'n**, XVII (1965), 122/123 orrialdeetan, Luis Peña Basurto-ren adierazpenez. Baina bai ba du antza, eta behar bada zer ikusia ere bai, Santimamiñen bilatutakoekin, batez ere 1924-an osorik bilatu zen aizkora bakarrarekin, zeren harek, ophitazkoa izateaz gainera, egitura berdina du eta gainera neurritz ere berdinak direlako. Bere xehetasunak ikus **Exploración de la Caverna de Santimamiñe** (2.<sup>a</sup> Memoria. Bilbao, 1931), Aranzadi, Barandiaran eta Eguren-en liburuaren 76-garren orrialdean eta 37-garren irudian. Barandiaranek, Euskal-Herriko harri-aro berriaren gauza bereizgarri bat bezala agertzen ditu otaharrizko aizkora hauek, **El Hombre prehistórico en el País Vasco-ren** (Buenos Aires, 1953) 127-garren orrialdean.



Gorosta-Beñako harrizko aizkora

Esan dudanez, elkarren antzekoak dira materialez, teknikaz eta are gehiago neurriz. Harri-garria bada ere, luze zabalean berdinak dire eta sendoeran milimetro baten aldia dute. Santimamiñekoak 90 x45 x 29 mm. ditu. Elkarren artean duten diferentzia bakarra, Eibarko aizkorak ahoa zuzenagoa duela. Itxura batean, badirudi, esku batetik irtenak direla.

Eibarren bertan, orain arteko Historia-aurretiko arrasto bakarra dugu, baina bertatik asko urrutira gabe arkitzen dira zenbait dolmen, J. Elosgi-ren **Catálogo dolménico del País Vasco** (Zaragoza, 1953) lanak dakartzkienak, Elosua-Plazentzia mendietakoak 270/274 orrietan eta oraindik hurbilago dagoen Kalamua mendikoak, 294 eta 227 orrialdeetan. Beraz, ez da harrizko gauza holako bilaketa.

## RESUMEN

Hacha de piedra, hallada junto al caserío Gorosta-beña de Eibar en heredad perteneciente al mismo.

Se trata de un hacha pulimentada, de piedra de ofita verdosa. Técnicamente de la tipología clásica que hizo su aparición en el período Neolítico y que siguió durante el Eneolítico. Mide 90x45x30 mm. En su material, forma y dimensiones es muy similar a la descubierta en Santimamiñe, en 1924.

Y se recuerda su posible relación con las estaciones dolménicas registradas no lejos del lugar, en los montes Elosua-Plazentzia y en el más próximo Kalamua.